



[Eusk/Cast] Carta de los amigos y familiares de Patxi Ruiz

PATXIREN SENIDE ETA GERTUKO LAGUNAK :: 20/05/2020

Nos encontramos en una carrera contra el reloj. Una carrera a vida o muerte.

[Euskara]

PATXIREN SENIDE ETA GERTUKO LAGUNAK

Ohar honen bitartez, Patxi Ruiz Romero euskal preso politikoaren senide eta lagunok, zera adierazi nahi dugu:

- Une latzak izaten ari dira hauek guretzako. Espetxe politika kriminalak, eta kasu honetan Murtzia II espetxeko zuzendaritza eta medikuaren jarrera faxistak bultzatuta, Patxi bere burua gose eta egarri greban jartzera behartuta ikusi du. Orduetik, erlojupeko lasterketa batean aurkitzen gara, hil ala bizikoa dena.

- Gogoratu nahi dugu, egoera honetara iritsi garelako orain dela hamar urtetik honako testuinguruak eraginda. Izan ere, Patxi azken hamar urte hauetan, berak eginiko ibilbide militante guztian zehar bezala, duintasunaren eredu izan da eta honen ondorioz, etsaia eta beste eremu ezberdin batzuetatik jo puntuan jarri dute (horren adibide garbiak dira berak publiko eginiko bi idatziak denak ez du balio eta erakundeko zuzendaritza batzordeari). Azken hilabete hauetan, Covid-19aren kontestuan, Patxi, beste preso batzuekin batera, espetxeko patioan elkarretaratzeak egiten hasi zen. Bertan, preso guztien eskubideen alde egiten zuen. Besteak beste, preso gaixoen eta kondena ia beteta duten presoek kaleratzearen alde. Eta orain, borroka horretan, bizitza bera jarri du jokoan.

- Horretaz gain, Patxiaren iritzia eta nahia ERRESPETATZEA eskatzen dugu.

- Eskerrik sentituenak eman nahi dizkizuegu, nola edo hala, Euskal Herrian barna zein atzerritik, Patxi elkartasuna adierazi edota bere borrokarekin bat egiten ari zareten guztiei. Animo bereziki, gose greban zein baraualdian zareten lagunei eta baita espetxe barruan elkartasunez borrokan jarri zareten kide guztiei. Zuen guztion bultzada gure arnasa da! - Bukatzeko, borroka honi eustera animatzen zaituztegu, era batean edo bestean, Patxi zuen elkartasuna adieraziz, kalean bere egoera salatuz edota bere aldarrikapenekin bat eginez. Denon indarra beharrezkoa da borroka hau irabaziko badugu. PATXI BORROKAN, GU ERE BAI! AMNISTIA!

[Castellano]

PATXIREN SENIDE ETA GERTUKO LAGUNAK

A través de este comunicado, lxs amigxs y familiares del preso político vasco Patxi Ruiz Romero queremos expresar lo siguiente:

- Son momentos muy duros para nosotrxs. La política carcelaria criminal y, en este caso, la actitud fascista de la dirección y el médico de la cárcel de Murcia II, ha hecho a Patxi verse obligado a ponerse en huelga de hambre y sed. Desde entonces, nos encontramos en una carrera contra el reloj. Una carrera a vida o muerte.

- Queremos recordar que, hemos llegado a esta situación debido al contexto de los últimos diez años. Y es que Patxi ha sido durante estos últimos diez años, como durante toda su trayectoria militante, un ejemplo de dignidad. Y como consecuencia de ello, los enemigos y otros ámbitos han puesto a Patxi en el punto de lanza (ejemplos claros de ello son los dos escritos que él mismo ha hecho públicos no todo vale y al comité de dirección del erakunde). En estos últimos meses, en el contexto del Covid-19, Patxi, junto a otros presos, comenzó a realizar concentraciones en el patio. En las mismas actuaba en favor de los derechos de todxs lxs presxs. Entre otros, reclamaba la excarcelación de lxs presxs enfermxxs y de lxs que les quedaba poca condena por cumplir. Y ahora, en esa pelea, Patxi está poniendo en juego su propia vida.

-Además, pedimos que se RESPETE la opinión y el deseo de Patxi.

- Queremos daros nuestro agradecimiento más sentido a quienes, tanto en Euskal Herria como desde el extranjero, estáis mostrando vuestra solidaridad con Patxi y a quienes estáis sumándoos a su lucha. Animo especialmente a lxs amigxs que estáis llevando a cabo huelgas de hambre y ayunos, así como a lxs compañerxs que, en solidaridad, os habéis sumado a la lucha dentro de las cárceles. El empuje que nos estáis dando todxs nos llena los pulmones!

- Para finalizar, os animamos a seguir en esta lucha, haciéndole llegar de una manera u otra vuestra solidaridad a Patxi, denunciando su situación en la calle o uniéndonos a favor de sus reivindicaciones. La fuerza de todxs es necesaria si queremos ganar esta pelea.

PATXI BORROKAN, GU ERE BAI! AMNISTIA!

Adjuntamos las cartas publicadas anteriormente por Patxi Ruiz:

[Euskara]

Erakundeko Zuzendaritza Batzordeari - Patxi Ruiz Romero, euskal preso politikoa

Bada denbora bat, Berrian eta interneten argitaratutako nire gutuna dela eta, nirekin kontaktuan jarri zinetela gutun horren argitaratzearekin Erakundearen hiru diziiplina arau apurtu nituela informatzeko:

Ezker Abertzale osoaren ildoaren kontrakotasuna maila publikoan adieraztea. Zatiketa saioak babestu eta elikatzea. Erakundearen arauen eta barne diziplinaren urraketa.

Horregatik eskatzen zenizkidaten azalpenak eta, jakinarazten zenidaten, azalpen horien esperoan, nire militantzia etenda gelditzen zela. Erabaki hau, esan zenidatenaren arabera, EPPKren zuzendaritzari eta nire ondoan zeuden militante presoiei jakinaraziko zenieten eta,

azkenik, neurri hau publiko ez egitea eskatzen zenidaten.

Beste era batean ezin zenez izan, beharrezko azalpenak helarazi nizkizuen, nire partetik nire militantziaren kautelazko etenaldiari buruzko behin betiko erantzuna ematea eskatzen nizuen. Eta publiko ez egiteari dagokionez, jakinarazten nizuen, egungo egoeran, erabaki hori nire baino ez zela eta kontzientzia militanteak esaten zidanarekin koherentzian jokatu nuela.

Zuzendaritza Batzorde honen erantzunik ez dudanez jaso, gaur publiko egitea erabaki dut errespetatzen duzuela diozuen militantzia horren parte batekiko mantentzen duzuen jarrera. Agian, honezkero, inori ez zaio axola izango azken urteotan ENAMen eta, zehazkiago, Erakundean gertatu dena, zelan jokatzeko ari zireten bakarrik sektore erreformista errespetatuz, eta zer egiten ari zaitzaizkion zuen oinarritzko militantziaren parte bati.

Euskadi Ta Askatasuna, Nazio Askapenerako Euskal Erakunde Sozialista Iraultzailea, Euskal Herria askatzeko sortu zen, eta berezikiago, Euskal Herri Langilea. Horretarako definitu eta zehaztu zituen Euskal Iraultzaren lau helburuak: independentzia, sozialismoa, birbatasuna eta berreuskalduntzea. Gainontzeko guzti-guztia, estategia zein taktika, antolatze-moldeak, ildo politikoa, den-dena, lau helburu hauek lortzeko tresna dira. Hots, Euskadi Ta Askatasuna erakundean diziplina, ezinbestez, Euskal Iraultzaren zerbitzura dago, eta ez alderantziz. Euskal Herri Langilearen askatasuna lortzeko elementu subordinatua da.

Hau behin eta berriz egiaztatu da gure erakundearen historia luzean. Sorreratik bertatik, EKINeko gazte abertzale iraultzaileek ez zuten onartu PNVk inposatu nahi zien diziplina itsua, zeina baitzen ildo politiko likidazionista baten emaitza.

Gauza bera gertatu zen V. Biltzarreko garaian, non espainolismoaren eta erreformismoaren menpe ari zen Bulego Politikoa kanporatua izan baitzen, Euskal Iraultza likidatu nahi zuelako. Denborak eta praxiak aski argi frogatu dute Bulego Politiko haren ildo nolako zen eta nora jo zuen ondoren.

Fenomeno berbera errepikatu zen Sextaren garaian. Militante abertzale eta sozialista iraultzaile batzuek lehentasuna eman zioten Euskal Iraultzari eta, horren baitan eta horren zerbitzuan ulertu zuten militantzia. Horri esker garaitua izan zen, berriz ere, likidazionismo espainolista eta erreformista. Dena subordinatzen baita independentzia, sozialismoa, birbatasuna eta berreuskalduntzea lortzeko estrategia egokia mantentzeari begira, eta diziplina horren baitan kokatzen da.

Geroago, Poli-Milien zatiketaren garaian ere, kontu jakina da PMak gehiengo zabala zirela Erakundean eta, hala ere, diziplina modu iraultzaile horretan ulertzen zutelako, Miliek aurrera jo zuten ildo eta estrategia egoki baten inguruan. Berriz ere, praxiak argiro frogatu zuten nor zegoen zuzen eta nor oker.

Eta gogoratu behar da Poli-Miliek bi zatiketa izan zituztela ondoren, Berezieta eta Milikiena, eta bietan, berriz ere, diziplina aplikatu zela molde iraultzaile horretan, beti Euskal Iraultzaren aldeko tresna gisa, likidazionismo eta erreformismo guztien aurka.

Gaur egun ere historia errepikatzen da. Gure erakundeak Batzarra egin zuen 2007/2008 urteetan. %80ak bozkatu zuten abertzale iraultzaile politiko-militarraren alde. Oker ez banago, Batzarren prozesua 2009ko martxoan amaitu zen.

Hilabete horretan bertan, 2009ko martxoaren 16an, lehendik isilpean eta ezkutuan lanean ari zen frakzio erreformistak prentsaurrekoa eskaini zuen, bide, kanal, arau eta diziiplina guztien gainetik salto eginez. «Estrategia eraginkorra» aldarrikatu zuten, Erakundeak bere Batzarrean erabakitakoa ez zela efikaza argi eta garbi utziz. Prentsaurreko erabat frakzional horretan Otegi, Rodriguez, Zabaleta, Erkizia, Kiroga, Moreno, Diez eta Etxaide egon ziren, besteak beste. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduko frakzio erreformistaren aurkezpen publikoa izan zen.

Azaroaren 14an egin zuten agerraldi famatuena, «Mitchell» printzipioak onartuz Ezker Abertzale osoaren izenean, inolako eztabaidarik gabe. Benetako estatu-kolpea. Alferrik da espantuka aritzea militante likidazionista horien diziiplina eza eta jukutria deitoratuz, kritikatzuz eta kondenatuz. Alferrikako lana da, zeren eta lehenago esan dudan bezalaxe, diziiplina estrategia baten baitan subordinatzen den osagaia baita. Ez da nagusi baina morroi. Beraz, ENAMen baitan bi estrategia argi eta garbi agertu zirenean, automatikoki bi diziiplina ere sortu ziren, ezinbestez eta halabeharrez.

Ondoren etorri zena kontu oso jakina da. Diziiplina iraultzailea batere errespetatu ez zutenak hasi ziren diziiplina eta batasuna eskatzen denei, ezker-eskuin eta ozenki. Eta nahasmen ikaragarria nagusitu zen ENAMen baitan, ez baitzegoen argi noren eta zeren aldeko batasuna eta diziiplina eskatzen zen. Erreformistek, likidazionistek eta oportunistek ederki baliatu zuten konfusio hori, borroka armatuaz gain, estrategia iraultzaile osoa ere suntsitzeko, kontua ez baitzen borroka armatua bai / borroka armatua ez eztabaida itsu eta antzua. Arazoaren muina estrategia iraultzailea versus estrategia erreformista zen. 2007/2009 urteetan oso militante gutxik ikusi zuten arazoa. Gaur egun gero eta gehiagok ikusten dugu, eta horren arabera jokatzeko hasi gara.

Honaino iritsita, uste dut garbi azaldu dudala nire jarrera militantea. Nik diziiplina beti onartu dut, Euskadi Ta Askatasunaren estrategia abertzale, independentista eta sozialista iraultzailearen baitan. Eta diziiplina horri jarraiki, kontzientzia militante horri jarraiki, jokatzeko ari naiz jokatzeko ari naizen bezala. Ez naiz ni diziiplina hautsi duena, baizik eta estrategia erreformista eta likidazionista oso-osorik eta txintik esan gabe irentsi duzuenok. Hor dago gakoa!

2009/2011 urteetan kontu hauek guztiak erabat nahasita zeuden. Konspirazio horren ondorioz militante askok ez genuen argi ikusten gure erakundearen bereziki eta ENAMen oro har gertatzen ari zena. Baina 2017an gaude eta orain ez dago aitzakiarik. Kontuak eta aferak garbi daude. Bi estrategia dira gaur egun, bata erreformista eta beste iraultzailea. Bata likidazionista eta bestea V. Batzarren ildokoa. Bata PNVren mendekoa, gero eta argiago, eta bestea independentista eta sozialista, Erakundearen historiarekin zintzo eta koherentea. Eta honen guztiaren ondorioz, bi diziiplina ere badaude, bata erreformista eta bestea iraultzailea.

Nik, zuek bezala, nire hautua egin dut. Praxi iraultzaileak erabakiko du nork duen arrazoia eta nork ez. Azken bost urteek, hala ere, argi utzi dute betiko helburu eta strategiaren alde

nor garen, eta hurrengo bostek are argiago utziko dute hori. Euskal Herri Langilea horretaz ohartzen ari da.

Hau esanda aprobetxatu nahi dut ere, EPPKko kidea naizen heinean, EPPKren baitan ematen ari den «barne eztabaidan» parte ez hartzea erabaki dudala esateko. Honi ez diot zilegitasunik onartzen, izan ere inolako eztabaida gabe Gernikako Akordioa sinatzen behartu gintuen Zuzendaritza beretik jaiotzen baitelako. Eta preso politikoez legalitatearen bidea (salba dadila ahal duena) onar dezagun urtebeteko presio politiko-mediatikoa eta gero, norbaitek sinetsi al dezake egoera honetan, testuinguru honetan, eztabaida bat serioa dela? Posiblea dela askatasunez eztabaidatzea ukapen politikoa eta bazterketaren artean aukeratzera bultzatzen gaituztenean? EA Ofizialaren arduradunek pertsonen ahul eta babesgabeenak biltzen dituen kolektiboarekin egin izana frakzio honek ordezkatzeko duenaren adierazlea da.

Esango didazue zuen «estrategiarekin» bat egiten ez dudanez gero ez daukala zentzurik Erakundearen militarizazioa jarraitzeak, ezta EPPKren barnean jarraitzeak ere, ni neu kokatu naizela bietatik kanpo. Baina nik ez dut horrela ikusten, ni ez naiz banandu eta ez dut onartzen nirea ere baden etxetik alde egitea. Egin ezazue borroka armatu osteko markoan posibleak diren aukera guztien artean erabakitzea ahalbidetuko duen eztabaida justu bat. «Amnistia gauza ezina dela» argudiatzen duzue baina, ordea, independentzia posiblea dela irizten duzue (sozialismoari buruz aspaldi hitz egiten ez duzuela!). Ulertzen ez diren baieztapenak daude. Eztabaida justua egin ezazue eta militantziak erabaki dezala.

«Desobeditzeko gaitasunak ekarri bazuen gizakien historiaren hasiera, gerta litekeena da obedientziak ekartzea haren bukaera.» (Erich Fromm)

Patxi Ruiz Romero - Euskal preso politikoa

22 de abril de 2017

[Castellano]

Al Comité de Dirección de la Erakunde - Patxi Ruiz Romero, preso político vasco

Ya hace tiempo, con motivo de la publicación de mi carta en el diario Berria e Internet, os pusisteis en contacto conmigo para informarme de que, con la publicación de dicha carta había roto tres normas disciplinarias de la Erakunde:

Expresar públicamente mi posición contraria a la línea de toda la Izquierda Abertzale.
Apoyar y alimentar los intentos de escisión. Quebrantamiento de las normas de la Erakunde y de la disciplina interna.

Se me pedían explicaciones por ello y, se me hacía saber que, a la espera de las mismas, mi militancia quedaba en suspenso. Esta decisión, según me informasteis, habría sido puesta en conocimiento de la dirección de EPPK y de l@s militantes pres@s que me acompañaban y, por último, se me pedía que no hiciera pública esta medida.

Como no podía ser de otra manera os hice llegar las explicaciones correspondientes,

solicitando por mi parte que se me diera contestación final sobre la cautelar suspensión de mi militancia. Y respecto a lo de no hacerlo público, os hacía saber que, en el estado actual de las cosas, esa decisión era solamente mía y que actuaría en conciencia con mi coherencia militante.

Dado que no he recibido respuesta de esta Zuzendaritza Batzordea, decido hacer público hoy vuestro actuar para con parte de esa militancia que decís respetar. Tal vez a nadie le importe mucho, a estas alturas, lo que ha pasado en el MLNV y, más concretamente en la Erakunde durante estos últimos años, cómo estáis actuando respetando solamente al sector reformista, y qué es lo que estáis haciendo a parte de vuestra militancia de base.

Euskadi Ta Askatasuna, Organización Socialista Revolucionaria Vasca para la Liberación Nacional, surgió para liberar Euskal Herria, y más concretamente, al Pueblo Trabajador Vasco. Para eso definió y concretó los cuatro objetivos de la Revolución Vasca: independencia, socialismo, reunificación y reuskaldunización. Absolutamente todo lo demás, estrategia y táctica, formas de organización, línea política, todo, son herramientas para conseguir estos objetivos. Es decir que, en la organización Euskadi Ta Askatasuna la disciplina, necesariamente, está al servicio de la revolución Vasca, y no al revés. Es un elemento subordinado para conseguir la libertad del Pueblo Trabajador Vasco.

Esto se ha confirmado una y otra vez durante la larga historia de nuestra organización. Desde su mismo inicio, los jóvenes abertzales revolucionarios de EKIN no aceptaron la disciplina ciega que les quería imponer el PNV, la cuál era el resultado de una línea política liquidacionista.

Lo mismo ocurrió en la época de la V Asamblea, donde la Oficina Política que estaba actuando bajo el españolismo y el reformismo fue expulsada porque quiso liquidar la Revolución Vasca. El tiempo y la praxis han demostrado claramente cómo era la línea de aquella oficina Política y a dónde fueron después.

El mismo fenómeno se repite en la época de la Sexta. Algunos militantes abertzales y socialistas revolucionarios le dieron prioridad a la Revolución Vasca, y dentro de ella y a su servicio entendieron la disciplina y la militancia. Gracias a ellos volvió a ser vencido el liquidacionismo españolista y reformista. Porque todo se subordina a mantener una estrategia adecuada a conseguir la independencia, el socialismo, la reunificación y la reuskaldunización, y la disciplina se sitúa en base a ello.

Después, en la época de la escisión de los Poli-Milis, es sabido que los PM eran amplia mayoría en la Organización, y a pesar de todo, porque entendían la disciplina y la organización de ese modo revolucionario, los Milis tiraron hacia adelante en torno a una estrategia adecuada. Una vez más, la praxis volvió a demostrar quién estaba en lo correcto y quién en el error.

Y hay que recordar que los Poli-Milis tuvieron dos escisiones después, entre los Berezis y la de los Milikis, y que en las dos, nuevamente, se aplicó la disciplina de una manera revolucionaria, en todas ellas como instrumento a favor de la Revolución Vasca, contra todos los liquidacionismos y reformismos.

También a día de hoy la historia se repite. Nuestra organización llevó a cabo una Asamblea en los años 2007/2008, y el 80% votó a favor de una estrategia abertzale revolucionaria político-militar. Si no estoy equivocado, el proceso de la Asamblea terminó en marzo de 2009.

Ese mismo mes, el 16 de marzo de 2009, una fracción reformista que desde antes estaba actuando en silencio y a escondidas, ofreció una rueda de prensa saltando por encima de todos los caminos, canales, normas y disciplinas. Reivindicaron una «estrategia eficaz», dejando bien claro que lo que la Erakunde había decidido en su Asamblea no era eficaz. En esa rueda de prensa absolutamente fraccional tomaron parte, entre otros, Otegi, Rodríguez, Zabaleta, Erkizia, Kiroga, Moreno, Díez y Etxaide. Fue la presentación pública de la fracción reformista del Movimiento de Liberación Nacional Vasco.

El 14 de noviembre hicieron la rueda de prensa más famosa, aceptando los principios «Mitchell» en nombre de la Izquierda Abertzale sin ningún tipo de debate. Un auténtico golpe de estado. Es en vano espantarse y lamentando, criticando y condenando la falta de disciplina y la jugarreta de esos militantes liquidacionistas. Es en vano porque como he dicho antes, la disciplina es un componente que se subordina a una estrategia. Por lo tanto, cuando en el MLNV aparecieron claramente dos estrategias, automáticamente también surgieron dos disciplinas, necesariamente y sin remedio.

Lo que vino después es bien conocido. Quienes para nada habían respetado la disciplina revolucionaria empezaron a pedir disciplina y unidad a tod@s, de derecha a izquierda y bien alto. Y una confusión tremenda se hizo dueña del MLNV, ya que no estaba claro entorno a quién ni a qué se pedía unidad y disciplina. Los reformistas, los liquidacionistas y los oportunistas aprovecharon perfectamente esa confusión para, además de con la lucha armada, terminar con toda la estrategia revolucionaria, porque la cuestión no era la discusión ciega y estéril sobre lucha armada sí / lucha armada no. La clave del problema era estrategia revolucionaria versus estrategia reformista. En los años 2007/2008 muy pocos militantes vieron el problema. Hoy cada vez somos más los que lo vemos y hemos empezado a actuar en base a ello.

Llegados aquí, creo que he explicado claramente mi actitud militante. Yo siempre he aceptado la disciplina, dentro de la estrategia abertzale, independentista y socialista revolucionaria dentro de Euskadi Ta Askatasuna. Y siguiendo esa disciplina, y unido a esa conciencia militante estoy actuando en el modo en el que lo estoy haciendo. No soy yo quien ha roto la disciplina, sino quienes habéis tragado con toda la estrategia y liquidacionista sin decir ni mu. ¡Ahí está la clave!

En los años 2009/2011 todas estas cuestiones estaban muy revueltas como consecuencia de esta conspiración, y much@s no veíamos claro qué es lo que estaba pasando en nuestra organización en particular y en el MLNV en general, pero estamos en 2017 y ahora no hay excusas. Las cuestiones están claras. Hoy existen dos estrategias, una reformista y la otra revolucionaria. Una liquidacionista y la otra de la línea de la V Asamblea. Una subordinada al PNV y la otra independentista y socialista, leal y coherente con la historia de la Erakunde. Por todo esto, también hay dos disciplinas, una reformista y la otra revolucionaria.

Yo, como vosotros, he hecho mi elección. La praxis revolucionaria decidirá quién tiene razón

y quién no. En cualquier caso, los últimos cinco años han dejado claro quienes estamos a favor de los objetivos y la estrategia de siempre, y los próximos cinco lo dejarán aún más claro. El Pueblo Trabajador Vasco se está dando cuenta de ello.

Dicho esto también quiero aprovechar para decir, desde mi condición de miembro del EPPK, que en relación al «debate interno» que se está llevando a cabo en el seno del EPPK, yo he decidido no tomar parte. No acepto la legitimidad del mismo por partir de la misma Dirección que, sin ningún tipo de debate, nos obligó a firmar el Acuerdo de Gernika. Y porque, después de un año de presión político-mediática conminándonos a los y las presas políticas vascas a asumir la vía de la legalidad (el sálvese quien pueda), ¿Alguien puede creerse que es serio un debate en estas circunstancias, en este contexto? ¿Qué es posible debatir de manera libre cuando se nos conmina a elegir entre renuncia política o quedar en el ostracismo? Que los responsables de la IA Oficial hayan hecho esto con el colectivo de personas más vulnerables y desprotegidas da cuenta de lo que esta fracción representa.

Me diréis que al no compartir vuestra «estrategia» no tiene sentido que continúe militando en la Erakunde, así como continuar en el seno del EPPK, que yo mismo me he colocado fuera de dichos ámbitos. Pero yo no lo veo así, yo no soy ningún escindido ni acepto marcharme de lo que considero también mi casa. Haced un debate justo donde puedan debatirse todas las posibilidades que existen en el marco post lucha armada. Argumentáis que «la amnistía es irrealizable» pero, en cambio, opináis que es posible la independencia (¡del socialismo hace tiempo que ni habláis!). Hay declaraciones que no se entienden. Haced un debate justo y que la militancia pueda elegir.

«Si la capacidad de desobediencia constituyó el comienzo de la historia humana, la obediencia podría muy bien provocar el fin de su historia.» (Erich Fromm)

Patxi Ruiz Romero - Preso político vasco

22 de abril de 2017

No todo vale / Denak ez du balio

[Euskara]

Denak ez du balio

Patxi Ruiz, Euskal Preso Politikoa

Nire hitzek gainontzeko militante politikoen hitzek baino gehiago edo gutxiago balio beharko ez luketenean, ni bezala kondena betetzen egon ala ez, publikoki hitzaren erabilera egitea beharrezkoa ikusten dut, Ezker Abertzale ofizialaren zuzendaritza Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduari egiten ari zaion jazarpen politikoa salatzeke.

Egoera orokorraz eta batez ere iheslari zein presook pairatu dezakegun babesgabetasunaz

kezkatu, eztabaida testuinguru baten ondorioz, une jakin batean biltzea eta AMNISTIA bezalako aldarri zilegi baten alde militatzea zein antolatzea erabaki duten hamarka militanterenganako jazarpen eta gutxiespen politikorik ez.

Mugimendu honen zein berau osatzen duten militanteen aurka dagoen “sorgin ehiza” antzeko hori amaitu dadin eskatzen dut.

Bestetik eta Kolektiboko kide naizen aldetik, beharrezkoa ikusten dut Ezker Abertzale ofizialaren zuzendaritza azken urte hauetan Kolektiboari ezartzen ari zaizkion inposizioak salatzea, “Gernikako Akordioari” egindako atxikimendu behartutik hasita, zein azken urteotan burututako foro ezberdinei geroago emandako atxikimendu behartuak.

Nire izenean soilik, adierazi egin nahi dut ez ditudala baliogarriztat hartzen, formetan zein edukian, iruzurrezkoa eta injustua izan den barne eztabaidaren testuinguruan Kolektiboak hartutako erabakiak, non gure barne kohesioa mantentzetik urruti hemen bizi dugun egiazko errealitatea (eta anitza!) distortsionatu besterik egiten ez duen. EZ, NIRE IZENEAN EZ Kolektiboaren erabilpen alderdikoiari, modu publiko/mediatikoan bere baitan egindako ekimen ezberdinetan izan dugun parte hartze mailaren inguruan gezur egiten denean.

Eta Kolektiboaren baitan legalitatearen bidea erabiltzearen inguruko eztabaida egin “behar” dugunean, EZEZKOA ematen diet eztabaida bera baldintzatu nahi duten ekimen zein deklarazio politikoei. Berebizikoa da Kolektiboaren baitan gauzatu behar dugun eztabaida, baina hau edukiz anitza izan behar da, eta kanpotik baldintzatzan saiatu gabe. Atzo arte gure kideak izan direnen zein gainontzeko erakunde politikoen parteko errespetutik garatu behar da.

Parte naizen erakundearen zuzendaritza politikoari, errespetu osoz esaten diot EZ. Nire izenean ez dituzue herri honen seme alabak direnen artean ere etsaiak izendatuko. Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua ez da Ezker Abertzaleak bere osotasunean pairatzen duen egoeraren erantzule. Mugimendu honetan parte aktiboa hartzen duten militanteek zilegitasun osoa daukate gauzatzan ari diren lan politikoa aurrera eramateko.

Pasa den abenduan, Pariseko epaitegiko areto batean sei kidek irakurri zuten deklarazio politikoari dagokionez, nik ere gutun hori irakurtzeko aukera izan dudala adierazi nahi dut, eta bertan kideen deklarazioan egin ziren akusazio larriak justifikatzen zuten inolako argudiorik aurkitu ez nuela. Inolako manipulazioei, EZ. Nire hitzek gainontzeko militante politikoen hitzek baino gehiago edo gutxiago balio beharko ez luketenean, ni bezala kondena betetzen egon ala ez, batzen ezta indartzen ere EZ gaituenaren zati bat salatzea beharrezkoa egiten zitzaidan.

AMNISTIAREN NORABIDEAN... ANTOLAKUNTZA ETA BORROKA!!!

[Castellano]

No todo vale:

El movimiento pro- amnistía y contra la represión no es el responsable de la actual situación que sufre la I.A. en su totalidad.

Cuando mi palabra no debiera valer ni mas ni menos que la de cualquier otro militante político, se encuentre como yo pagando condena o no, me es necesario hacer uso de la palabra , de manera pública, para denunciar la actitud de acoso y persecución política que, desde la dirección de la I.A. oficial, esta siendo aplicada contra el denominado movimiento pro-amnistía y contra la represión.

No al acoso y desprestigio político por tomar la decisión de organizarse y militar a favor de la legitima reivindicación de la amnistía, como esta sucediendo con decenas de militantes políticos que, preocupados por la situación general de las cosas y, en especial, por la situación de indefensión en la que podríamos quedar pres@s y refugiad@s, deciden en un momento dado reunirse, en un contexto de debate del cual, surge esa determinación de organizarse y trabajar a favor de AMNISTIA.

Pido, solicito que cese esa especie de " caza de brujas" contra dicho movimiento y los y las militantes que lo conforman.

Por otro lado, desde mi condición como miembro del colectivo, también estimo necesario denunciar las imposiciones que, de diferente manera, viene aplicando la dirección de la I.A. oficial al conjunto del colectivo desde la adhesión forzosa al "acuerdo de Gernika", de la que fuimos objeto; como las posteriores adhesiones forzosas a los diferentes foros realizados estos últimos años.

Solo en mi nombre, quiero manifestar que no me son validas las decisiones tomadas por el colectivo en el contexto de un debate interno, injusto y fraudulento en sus formas y contenidos, que lejos de ayudar en nuestra debida cohesión interna solo provoca mas distorsión sobre la verdadera (iy variada!) realidad que vivimos aquí dentro. NO, EN MI NOMBRE NO a la utilización partidista que hacéis del colectivo cuando de manera publica/ mediática se miente a sabiendas sobre el grado de participación nuestra a las diferentes iniciativas realizadas en el colectivo.

Y en estos momentos en que "debemos" realizar un debate interno en el seno del colectivo sobre la posibilidad de utilizar la vía de la legalidad, digo NO a las iniciativas y declaraciones políticas que solo pretenden condicionar el debate. Nosotr@s necesitamos debatir, es una urgencia el debate en el seno del colectivo, pero este ha de desarrollarse sin limite en los contenidos, y sin injerencias externas, desde el respeto por parte de l@s que hasta ayer fueron compañer@s, como por parte del resto de organizaciones políticas.

A la dirección política de la organización a la que pertenezco, desde el respeto digo NO. En mi nombre no vais a nombrar enemigos entre los que también son hijos e hijas de este pueblo. El movimiento pro- amnistía y contra la represión no es el responsable de la actual situación que sufre la I.A. en su totalidad. Los y las militantes políticas que toman parte activa en dicho movimiento tienen plena legitimidad para desarrollar el trabajo político que vienen realizando.

Con respecto a la declaración política leída por seis compañer@s en la sala de un tribunal

de Paris, el pasado Diciembre, quiero manifestar que yo también tuve acceso a la carta que se menciona, y que en ella no encontré ningún argumento que justificara dichas y graves acusaciones. NO, a ningún tipo de manipulación. Cuando mi palabra no debiera valer ni mas ni menos que la de cualquier otr@ militante politic@, se encuentre como yo pagando condena o no, me era necesario denunciar parte de lo que NO nos hace estar mas fuertes y unid@s.

AMNISTIAREN NORABIDEAN... ANTOLAKUNTZA ETA BORROKA !!!

06 de julio de 2016

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-carta-de-los>